



Gizon bat bikotekide ohia atxikita eduki eta kolpatu du Gasteizen

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 19/03/2024

Erasotzaileak emakumearengandik urruntzeko agindua zuen indarrean, aurrez egindako txartu txarrak tarteko.

Atzo emakume bat salatu zuenez, bikotekide ohiak Gasteizko lokal batean atxikita izan zuen ordu luzez, eta tarte horretan, hainbat aldiz eraso zion. 41 urteko erasotzaileak emakumearengandik urruntzeko agindua zuen indarrean, aurrez egindako txartu txarrak tarteko. Ertzainek handik gutxira topatu zuten erasotzailea, atxilotu egin zuten eta polizia-etxera eraman. Ikerketa abian dago, biktimak salaketa noiz aurkeztuko zain.

<https://eh.lahaine.org/gizon-bat-bikotekide-ohia-atxikita>